

## BESTELAKO XEDAPENAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

## 2406

*EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeolitak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Lantarongo (Araba) udalerrian Zeolitas de Álava SL enpresak sustatua.*

### AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Zeolitas de Álava SL enpresak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Lantarongo (Araba) udalerrian zeolitak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera proiektuak Lantarongo hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2006ko uztailaren 10eko udal-txostena bidali du sustatzaileak, eta honako agiri tekniko hauek:

- Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).
- Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Zeolitas de Álava SL enpresak, besteak beste, 1997ko ekainaren 17koko jarduera-lizentzia zuen. Baimen hori zeolitak fabrikatzeko eman zen. Era berean, enpresa sustatzaileak honako baimen hauek zituen: ubidera isurketak egiteko baimena, 2004ko abenduaren 17koa, hondakin arriskutsuen ekoizle txiki izateko baimena, 2005eko urtarrilaren 31koa eta industria-hondakin geldo eta geldoarazien ekoizle izateko baimena, 2004ko otsailaren 25ekoa, indarrean dagoen hondakinen araudian xedatutakoaren arabera.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Lantarongo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari kontsultatu zien.

2007ko martxoaren 9an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko uztailaren 31n osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Zeolitas de Álava SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 23an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Lantarongo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Ebroko Ur Konfederazioari eta Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetzari.

2008ko otsailaren 25ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Zeolitas de Álava SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

2008ko martxoaren 6an, sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren Ebazpen Proposamenari lotuta.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikulua ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Zeolitas de Álava SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzeko du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzeko, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Zeolitas de Álava SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Lantarongo Udalaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Ebroko Ur Konfederazioaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak. Hain zuzen ere, kontuan hartu dira Europako Batzordearen ekoizpen-bolumen handiko kimika ez-organikoaren «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals - Solids and Others» BREF agiria, 2007ko abuztuko, monitorizazioaren «Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring» BREF agiria, 2003ko uztailakoa, biltegiatzearen «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiria, 2006ko uztailakoa, sektore kimikoaren lerroko «Common waste water and waste gas treatment and management systems in the chemical sector» BREF agiria, 2003ko otsailakoa eta hoztearen «Cooling Systems» BREF agiria, 2001eko abendukoa.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Zeolitas de Álava SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharra aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 3an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatu daitezkeen gainerako araudia, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Lantarongo (Araba) udalerriko Miranda-Puentelarrá errepidea, 5. km-a eta IFK: B-62575873 zenbakia duen Zeolitas de Álava SL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Lantarongo udalerrian zeolitak fabrikatzeko jarduera garatzeko, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluan arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.2 «Baseko produktu ez-organikoak fabrikatzeko industria kimikoak, hala nola: d) Gatzak, hala nola amonio kloruroa, potasio kloratoa, potasio karbonatoa, sodio karbonatoa, prioratoak, eta abar eta e) Ez-metalak, oxido metalikoak, edo kaltzio karburoa, silizioa, silizio karburoa bezalako beste konposatu ez-organikoak» kategorian sartuta dago.

Fabrika Lantarongo (Araba) udalerrian dago, Miranda de Ebrotik Puentelarráko A-2122 eskualde-errepidearen 5. kilometroan. Lurzatia hiri-lurzoruan dago, industria-erabilerako industrialde baten barruan.

Zeolitas de Álava SL enpresaren fabrikak urtean 50.000 t zeolita ekoizteko gaitasuna du, material lehorra erabiliz.

Bi sekzio bereizi ditu ekoizpen-prozesuak: HTW edo sodio silikatoaren fabrikazioa eta HAB edo zeoliten fabrikazioa.

Sodio silikatoa fabrikatzeko prozesuan honako lehengai hauek erabiltzen dira: harea eta sodio hidroxidoa (% 50). Biak errektore birakari eten batean sartzen dira. Bertan berotu egiten dira, lurrunarekin, tenperatura egokia lortu arte eta harea sosan disolbatu egiten da horrela. Sodio silikatoa deskargatu eta gero, berritu eta andel batean biltegitratzen da, zeoliten instalazioan erabiltzeko ondoren.

HAB edo zeoliten fabrikazioaren sekzioan honako lehengai hauek erabiltzen dira sodio aluminioaren kasuan: aluminio hidroxidoa eta sodio hidroxidoa. Errektore batean sartu eta 102 °C-ra berotzen dira. Disoluzio urtsu bat lortzen da horrela eta disoluzio horri sodio silikatoa gehitzen zaio, sodio/aluminio silikatoa hauspeatzeko.

Zeolita esekia iragazi eta banda-iragazki huts batean garbitzen da. Bertan ore bat lortzen da, % 50 zeolita duena, produktu lehorrari dagokionez.

Ondoren, gas-lehorgailu bat erabiltzen da ore lehertzeko. Orduan amaitutzat jotzen da zeoliten fabrikazioa. Zeolita lehorra dagoenean biltegi-silora eramaten da, haizagailu baten bitartez.

Jardueraren prozesuko urak birziklatu egiten dira prozesuko beste fase batzuetan, hortaz, sortzen diren isurtzeen jatorria garbiketa-uretan, jarioetan, euri-uretan, lurruntze-trinkotuetan eta hozte-uretan dago. Isurtze horiek uren tratamendu-sistema batetik igarotzen dira. Sistema horretan putzuak, neutralizazio-andela, uren dekantagailua eta lohi-iragazki bat daude eta guztietatik igarotzen dira isurtzeak, Ebro ibaira isuri aurretik. Ur sanitarioen isurtzeak hobi septikora eramaten dira.

Instalazioak lau isurtze-foku sistematikotu ditu, hain zuzen ere: garbiketa-sistemarena, lehorgailuarena, biltegi-siloarena eta ontziratzeko sistemarena, eta guztiak zeolitak fabrikatzeko prozesuaren (HAB) barruan daude. Foku guztietan uhal-iragazkien bidezko arazketa-sistemak daude, eta fokuen arabera ezaugarri desberdinak dituzte.

Jarduera honetan jarraitu behar diren BREF agiriak honakoak dira: ekoizpen-bolumen handiko kimika ez-organikoaren «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals – Solids and Others» BREF agiria, 2007ko abuztukoak, monitorizazioaren «Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring» BREF agiria, 2003ko uztailekoak, biltegitratzeen «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiria, 2006ko uztailekoak, sektore kimikoaren lerroko «Common waste water and waste gas treatment and management systems in the chemical sector» BREF agiria, 2003ko otsailkoak eta hoztearen «Cooling Systems» BREF agiria, 2001eko abendukoak. Enpresak jarraitzen dituen TEOei dagokienez, azpimarratzekoak dira honakoak: prozesuan garbiketa-urak berrerabiltzea, zeolitak fabrikatzeko prozesuko hondakin-uretarako tratamenduko instalazio bat edukitzea eta lehorte-fasean sortutako hautsa kudeatzeko mahuka-iragazkiak erabiltzea.

Bigarrena.– Zeolitas de Álava SL enpresak Lantarongo udalerrian sustatutako zeolitak fabrikatzeko instalazioa ustiatzeko, ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Zeolitas de Álava SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Zeolitas de Álava SL enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabeen gai kutsatzaileak ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezten. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik daudenaldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Zeolitas de Álava SL enpresaren instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordinatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	1011549-01	Garbiketa-sistema	8,00	0,15	mailan	2.12.5	501.403	4.729.512
2	1011549-02	Ontziratze sistema	13,50	0,50	mailan	2.12.5	501.411	4.729.490
3	1011549-03	Lehorgailua	19,80	0,70	mailan	2.12.5	501.401	4.729.459
4	1011549-04	Biltegi-siloa	41,30	0,25	mailan	2.12.5	501.404	4.729.495

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Partikula solidoak	20 mg/Nm <sup>3</sup>
2	Partikula solidoak	20 mg/Nm <sup>3</sup>
3	Partikula solidoak	20 mg/Nm <sup>3</sup>
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO <sub>x</sub> )	300 ppm
4	Partikula solidoak	20 mg/Nm <sup>3</sup>

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetetz luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaeren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

#### B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriari dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.  $L1 \geq 8D$  eta  $L2 \geq 2D$  distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira  $L1 < 2D$  eta  $L2 < 0,5D$  balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldeztu aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

Isurtze barreatuak minimizatzeko helburuarekin, biltegiatze-siloetan partikulak hartzeko sistemak jarriko dira. Horrez gain, lehengaiak eta gaiak garraiatzeko uhalak eta bestelako gailuak erabat estaliko dira.

#### B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

##### B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: kimika ez-organikoko oinarritzko produktuak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: 9.

Mota - Taldea – JESN: 02-09-2413.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koordinatuak
1	Industrialak	Garbiketa-urak Jarioen urak Euri-urak Hozte-urak Lurruntze-trinkotuak	Ibilgua	Ebro ibaiaren arro hidrografikoa	II. kategoria	X: 501.060 Y: 4.729.530

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Industriako hondakin-urak.

Eguneko gehieneko bolumena	< 300 m <sup>3</sup>
Urteko gehieneko bolumena	< 65.000 m <sup>3</sup>

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehieneko balioekin:

a) 1. isurketa: Industria-erabilerako urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	6-9
Gai esekiak	<80 mg/l
OEK	<160 mg/l
Sulfatoak	<500 mg/l
Aluminioa	<1 mg/l

Temperatura: 3 °C-ko igoera beheko ibilguan.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik barne hartzen ditu eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

## B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak espedientean agertzen den enpresa eskatzaileak aurkeztutako agerietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

- Uren tratamendu-sistema, honako elementu hauekin: putzuak, neutralizazio-andela, ur-dekantagailua eta lohi-iragazkia.

- 2,5 m<sup>3</sup> bolumeneko hobi septikoa, langileen komunitatik datozen uren tratamendurako.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoa ez direla ikusiz gero, Zeolitas de Álava SL enpresak behar beste aldageta egingo ditu arazketa-instalazioetan isuriak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko zaizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, baimendutako industria-uraren isurketa kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

## B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamen-  
duaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien kontrol-kanona =  $B \times P_u$ .

$$P_u = P_o \times K_m$$

$$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$$

Honela ulertuta:

$B$  = Isurketa baimenduaren bolumena (m<sup>3</sup>/urte).

$P_u$  = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

$P_b$  = Oinarrizko prezioa m<sup>3</sup>-ko isurketaren izaeraren arabera.

$K_m$  = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

$K_2$  = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

$K_3$  = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

$K_4$  = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: Industria-erabilerako urak:

B: Bolumena:	$B = 65.000 \text{ m}^3 / \text{urte}$
$P_b$ : Hondakin-ura: Industriala	$P_b = 0,03005 \text{ €/m}^3$
$K_2$ : 2. mota substantzia arriskutsuekin	$K_2 = 1,09$
$K_3$ : Tratamendu egokia	$K_3 = 0,5$
$K_4$ : Kategoria-eremua: II	$K_4 = 1,12$

$$K_m = 1,09 \times 0,5 \times 1,12 = 0,6104.$$



$$P_u = 0,03005 \times 0,6104 = 0,01834 \text{ euro/m}^3.$$

$$\text{Isurien kontrol-kanona} = 65.000 \times 0,01834 = 1.192,26 \text{ euro/urte.}$$

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurketen kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin (TRLAren 113.7 artikulua).

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegitatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako autokudeaketa behar da edo balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin horiek tratatzeko instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegean ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorritz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegean hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorritz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Lantarongo Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

- 1. hondakina: «Hondar-olioa».

- Identifikazioa: B62575873/18829/1/1.

- Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6// A274(1)//B0019.
- EHZ: 13 02 08.
- Urtean sortutako kantitatea: 130 kg.

Ekipoen mantentze-lanetan sortzen dira. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

- 2. hondakina: «Aerosol teknikoa».
- Identifikazioa: B62575873/18829/1/2.
- Hondakinaren kodea: Q3//R13//S-G36//C41//H3b/5// A274(1)//B0019.
- EHZ: 16 05 04.
- Urtean sortutako kantitatea: 8 kg.

Ekipoen mantentze-lanetan sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

- 3. hondakina: «Hidrokarburoak dituzten trapuak».
- Identifikazioa: B62575873/18829/1/3.
- Hondakinaren kodea: Q5//D5//S34/40/C41/51//H5// A274(1)//B0019.
- EHZ: 15 02 02.
- Urtean sortutako kantitatea: 65 kg.

Makinen mantentze-lanetan eta makinak koipeztatzean sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

- 4. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».
- Identifikazioa: B62575873/18829/1/4.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14// A274(1)//B0019.
- EHZ: 20 01 21.
- Urtean sortutako kantitatea: 52 kg.

Luminarien mantentze-lanetan sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

- 5. hondakina: «Berunezko bateriak».
- Identifikazioa: B62575873/18829/1/5.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8// A274(1)//B0019.
- EHZ: 16 06 01.
- Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Orgatilen mantentze-lanetan sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

- 6. hondakina: «Botoi-pilak ez direnak».
- Identifikazioa: B62575873/18829/1/6.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C6/7//H14//A274(1)//B0019.

– EHZ:20 01 33.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Kalkulagailuak eta kontrol-ekipoak erabiltzean eta laborategian, eta abar sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

○ 7. hondakina: «Botoi-pilak».

– Identifikazioa: B62575873/18829/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6//A274(1)//B0019.

– EHZ:16 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Kalkulagailuak eta kontrol-ekipoak erabiltzean eta laborategian, eta abar sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

○ 8. hondakina: «Kutsatutako xurgatzaileak».

– Identifikazioa: B62575873/18829/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q4//D15//S34/40//C41/51//H5//A274(1)//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Mantentze-eragiketetan eta jarioak jasotzean sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

○ 9. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B62575873/18829/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C23/41//H5//A274(1)//B0019.

– EHZ:15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 67 kg.

Ekoizpenean sortzen da, gaiak manipulatzeari. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

○ 10. hondakina: «Kedarra – Tonerra».

– Identifikazioa: B62575873/18829/1/10.

– Hondakinaren kodea: Q2//R13//S12//C41//H5//A274(1)//B0019.

– EHZ:08 03 17.

– Urtean sortutako kantitatea: 8 kg.

Fotokopiagailua, inpresora eta faxen mantentze-eragiketetan sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

○ 11. hondakina: «HCz kutsatutako materiala (junturak)».

– Identifikazioa: B62575873/18829/1/11.

- Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C41/51//H5// A274(1)//B0019.
- EHZ: 15 02 02.
- Urtean sortutako kantitatea: 16 kg.

Makinen mantentze-lanetan eta makinak koipeztatzean sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezten.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Zeolitas de Álava SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Zeolitas de Álava SL enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan sortako olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Zeolitas de Álava SL enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Zeolitas de Álava SL enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak baldin baditu, abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua bete beharko du.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Zeolitas de Álava SL enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektronikoko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

o) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Zeolitas de Álava SL enpresak 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua), amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

#### B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t)
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	190814	Zerbitzu osagarriak (uren arazketa)	37
Zeolita	070699	Zeolita fabrikatzea	3
Papera	200101	Orokorra	1,8
Plastikoa	160119	Orokorra	
Prozesuko industria-lohiak	070612	Zeolita fabrikatzea	4

a) Efluenteen in situ tratamenduaren lohiei dagokionez, hondakin horiek ispiluz gaur egun indarrean dagoen hondakinaren Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarriko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, proposatutako kudeaketa-bideak ebazpen honek jasotako hondakinak kudeatzeko printzipio hierarkikoekin bat egiten duela justifikatu beharko da. Zeolitas de Álava SL enpresak onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak artxiboan erregistratu eta gorde beharko ditu bost urtetan gutxienez, horiek aginduzkoak direnean.

e) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegei baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektronikoko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

#### B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez, lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko egoera txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Zeolitas de Álava SL enpresak lurzoruaren babesa ziurtatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu eta, bereziki, zola berezien mantentzea egin beharko du –higatuta daudenak ordeztu–, horien narriadura dela-eta azidoen kontrako zola gisa duten gaitasuna galtzea ekiditeko.

Igarobideetan zolen arteko junturen mantentzea egingo da, belarrak haztean zolen pixkanakako narriadura ekiditeko. Bidoiak biltegitartzeko instalazioa hobetuko da. Xede horrekin, kubeta bat jarriko da, jarioak zein isurtzeak zorura iristea ekiditeko.

Ur-putzuetan mantentze txikia egingo da, horien egoera egiaztatuz. Putzuak ikuskatuko dira, maila baxuenean daudenean, hartara, hormen eta zoruen azidoen kontrako propietateak bermatzeko, putzuen edukiak horrela eskatzen duenean.

Hautsezko materialak arrastaka eramatea minimizatuko da, ondorengo neurri orokorrak ezarriz:

- Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babes-tutako tokietan gorde.
- Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzeko saihestu.
- Materialak paletatik deskargatzean, garaiera mugatu.

#### B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sensibilitate akustiko handieneko gunetako zarata-maila.

### C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

#### C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Zeolitas de Álava SL enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1011549-01	Garbiketa-sistema	Partikula solidoak	KEBk egindako neurketak, 3 urtean behin
				Begi-bidezko ikuskaritza astero
2	1011549-02	Ontziratze sistema	Partikula solidoak	KEBk egindako neurketak, 3 urtean behin
				Begi-bidezko ikuskaritza astero
3	1011549-03	Lehorgailua	Partikula solidoak, CO eta NO <sub>x</sub>	KEBk egindako neurketak, 3 urtean behin
				Begi-bidezko ikuskaritza astero
4	1011549-04	Biltegi-siloa	Partikula solidoak	KEBk egindako neurketak, 3 urtean behin
				Begi-bidezko ikuskaritza astero

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol-erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol-erakundearen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, kontrolak eta isurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

#### C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilia gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen

kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Industrialia	pH-a	Hiru hilero	Autokontrola
		Gai esekiak		
		Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)		
		Sulfatoak		
		Aluminioa		

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Arabako Ordezkaritza).

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.4.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:



## 2013ko maiatzaren 23a, osteguna

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Sodio silikatoaren fabrikazioa	t			urtero
	Zeoliten fabrikazioa	t			urtero
	Ekoizpena guztira sodio silikatoa+ zeolitak	t			urtero
Materialen kontsumoa	Silize-harearen kantitatea	t	Silikato harriaren kantitatea/sodio silikatoaren kantitatea	t / t sodio silikato	urtero
	Sosa kaustikoaren kantitatea	t	Azido sulfurikoaren kantitatea/tona sodio silikato	t / t sodio silikato	urtero
	Alumina hidratatuaren kantitatea	t	Aluminio sulfatoaren kantitatea/tona alumina hidratatu	t/t alumina hidratatu	urtero
Energia kontsumoa	Guztizko energia-kontsumoa	kWh	Energia-kontsumoa / ekoizpena guztira	kWh/t produktu guztira	urtero
	Elektrizitate-kontsumoa	kWh	Elektrizitate kontsumoa/guztizko ekoizpena	KWh / t produktu	urtero
			Elektrizitate kontsumoa/guztizko ekoizpena	% (kWh/kWh)	urtero
	Gas naturalaren kontsumoa	kWh	Elektrizitate kontsumoa/guztizko ekoizpena	KWh / t produktu	urtero
			Gas naturalaren kontsumoa / prozesu-energiaren guztizkoa	% (kWh/kWh)	urtero
	Lurrun-kontsumoa	kWh	Elektrizitate kontsumoa/guztizko produkzioa	KWh / t produktu	urtero
Lurrun-kontsumoa / prozesu-energiaren guztizkoa			% (kWh/kWh)	urtero	
Atmosferara egiten diren isurtzeak	PSen isurtzeak (gehi., gutx., batez bestekoa, lagin-kop.)/1, 2, 3 eta 4 fokuetarako	mg/Nm <sup>3</sup>	PSen isurtzeak	mg/Nm <sup>3</sup>	urtero
	PSen isurtzeak	kg	PSen isurtzeak	kg	urtero
			PSen guztizko isurtzeak/Guztizko ekoizpena	Kg/t	urtero
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m <sup>3</sup>	Ur-kontsumoa	m <sup>3</sup>	urtero
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak / Ebro ibaia	m <sup>3</sup>	Industria-isurketak / Ebro ibaia	m <sup>3</sup>	urtero
	Euri-uren isurketak / Ebro ibaia	m <sup>3</sup>	Euri-uren isurketak / Ebro ibaia	m <sup>3</sup>	urtero
	pH-a (geh., gutx., batez bestekoa)/1. isurketa-puntua	pH-a	pH-a (geh., gutx., batez bestekoa)/1. isurketa-puntua	pH-a	urtero
	Solido esekiak (geh., gutx., batez bestekoa)/1. isurketa-puntua	mg/l	Isuritako sulfatoak	mg/l	urtero

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
	Solido esekiak (SE) (geh., gutx., batez bestekoa)/1. isurketa-puntua	mg/l	Isuritako partikulak	mg/l	urtero
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Sortutako hondakin arriskutsuak / Ekoizpena	t/t	urtero
	Hondakin arriskutsu balioak	t	Hondakin arriskutsu balioak / Sortutako hondakin arriskutsuak (araztegiko lohiak)	% (t/t)	urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak / Ekoizpena	t/t	urtero
	Hondakin ez-arriskutsu balioak	t	Hondakin ez-arriskutsu balioak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	% (t/t)	urtero
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekien lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	Kopurua/urte	urtero
IKS	Ezari eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea	urtero

#### C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistematik. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira. Ingurumeneko ziurtagiria justifikatzen bada, ez da beharrezkoa izango erakunde independente espezializatuak egitea.

#### C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiriategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiriategina landu beharko du, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (24.13 epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarri-laren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Zeolitas de Álava SL enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontaktzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean (2006ko abendua) ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuak eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegitratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketara mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, fabriketan sortutako hondakinak maneiatzeko lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

- g) Hautsezko produktuak biltegitratzeko siloak itxita egongo dira eta iragazkiak edukiko dituzte.
- h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegitratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.
- i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.
- j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.
- k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.
- l) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegei baimendura eramango dira.
- m) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.
- n) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren oihantzea garbituko du, garbiketaren arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.
- o) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.
- p) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.
- q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.
- r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, produktu kimikoen jarioak gertatzea, ustekabeko isuri bat gertatzea, gas-jarioak gertatzea, isurpenaren muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.
- s) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Udaleri jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharri buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:
- Gertakari-mota.
  - Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
  - Iraupena.

- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomentatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Zeolitas de Álava SL enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa bata besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez ([www-eper-euskadi.net](http://www-eper-euskadi.net) web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroa (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentzarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten

diren substantzietan, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumeneko izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.e) (Hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak), B.1.3.1.m) (Hondakin arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua), B.1.3.2.a) (Efluenteen in situ tratamendu-lohien ezaugarriak), B.1.3.2.d) (Hondakin ez-arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua), B.1.3.2.f) (Hondakin ez-arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua), B.1.4 (Lurzorua babesteko neurriak), edo, hala badagokio, C.1 (Isurtzeen kontrola), C.1.1 (Atmosferara egiten diren isurtzeen erregistro-eredua), C.3 (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Programatutako geldialdietan isurtzeen zenbatespena), D.3.a), b) eta c) (Mantentze-lanen eskuliburua, ikuskapen- eta kontrol-programa), D.3.h) (Biltegitarte-ziurtapenak ziurtatzea), D.3.i) (Larrialdi-egoerarako eskuragarri dauden materialen zerrenda), D.3.j) (Kubetak husteko protokoloa), D.3.t) (Suteen kontrako araudia).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoaren ikuskaritza-bisita egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berri egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldiatarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Zeolitas de Álava SL enpresak Ebazpen honen xede den zeolita fabrikatzeko jardueran egindako edozein titulartasun aldaketa jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

- Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

- Zeolitas de Álava SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

- Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Zeolitas de Álava SL enpresari, Lantarongo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,  
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.